



**Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez administrazio-prozedurekin jarraitzea erabakitzen baita COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. eta 4. zenbakietan aurreikusitakoaren babesean.**

Uraren Euskal Agentziak, bere jardueren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren interes orokorrean eragin zuzena duten ahalmen publikoak baliatzen ditu.

Era berean, Agentziak aurrez aurrekoa ez den lan-modalitatea eskaini die bere langile guztiei, postu kritikoetan daudenei izan ezik, eta bitarteko telematiko egokiak ditu, hala nola bitartekaritza-plataformak, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, web-orria eta tresna eta zerbitzu informatikoak, zeinek aukera ematen baitiote, batetik, dagozkion zerbitzuak ematen jarraitzeko, eta, bestetik, interesdunekiko komunikazioa mantentzeko.

Gainera, kontuan hartu behar da interesdunek ados daudela adierazten badute soilik jarraituko dela dagokion izapidearekin, eta, nolahi ere, lanak garatu behar diren salbuespenezko inguruabarrak kontuan hartuta, izapidetzearekin jarraitzeko, interesdunek eta zeregin horiek dagozkien Agentziako langileek duten gaitasuna beharko da.

Uraren Euskal Agentziaren Estatutuetik (martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren

**Resolución de 25 de marzo de 2020, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se acuerda continuar con los procedimientos administrativos al amparo de lo previsto en los apartados 3 y 4 de la disposición adicional tercera del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19**

La Agencia Vasca del Agua, en el marco de sus actividades, ejerce potestades públicas que inciden directamente en el interés general de la ciudadanía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Asimismo, la Agencia ha facilitado la modalidad de trabajo no presencial a todo su personal salvo a quienes ocupan puestos críticos, y dispone de los medios telemáticos adecuados, tales como plataformas de intermediación, sede electrónica del Gobierno Vasco, página web y herramientas y servicios informáticos, que le permiten, por un lado, continuar prestando los servicios que le corresponden, y por otro, mantener la comunicación con las personas interesadas.

Además, debe tenerse en cuenta que sólo si las personas interesadas manifiestan su conformidad se continuará con la tramitación que corresponda, y que, en todo caso, dadas las circunstancias excepcionales en las que se han de desarrollar los trabajos, la continuidad de la tramitación quedará supeditada a la capacidad que tengan las personas interesadas y el personal de la Agencia a quien le correspondan esas tareas.

En virtud de lo dispuesto en el art. 7 de los Estatutos de la Agencia Vasca del Agua



bidez onartuak) 7, zuzendari nagusiari dagokio ebazpen hau ematea.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoa – Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren 1. artikularen 4. zenbakiaren bidez aldatua – aintzat harturik, eta Gobernu Kontseiluak atzo Administrazio Orokorrarentzat eta haren erakunde autonomoentzat adostutako irizpideari jarraituz, hauxe,

### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Agentziaren eskumeneko eta Agentziari agindutako administrazio-prozedurekin jarraitzea erabakitzea, betiere interesdunen berariazko adostasuna jasota.

**Bigarrena.-** Interesdunek edozein unetan jakinarazi ahal izango dute izapidetzearekin jarraitzea ezinezkoa dela, eta une horretatik aurrera epeak etenda geratuko dira alarma-egoera amaitu arte.

### **AZKEN XEDAPEN BAKARRA**

Ebazpen honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a.

(aprobados por Decreto 25/2015, de 10 de marzo), le corresponde al Director General dictar la presente resolución.

Visto lo dispuesto en los apartados 3 y 4 de la disposición adicional tercera del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, modificado por el artículo 1 apartado 4 del Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo, y siguiendo el criterio acordado por el Consejo de Gobierno en el día de ayer para la Administración General y sus Organismos Autónomos,

### **RESUELVO**

**Primero.-** Acordar la continuación de los procedimientos administrativos competencia de la Agencia y encomendados a la misma, siempre y cuando conste la conformidad expresa de las personas interesadas.

**Segundo.-** En cualquier momento las personas interesadas podrán comunicar la imposibilidad de continuar con la tramitación, momento desde el cual los plazos quedarán suspendidos hasta la finalización del estado de alarma.

### **DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA**

La presente resolución surtirá efectos desde el día de la firma.

Vitoria-Gasteiz, 25 de marzo de 2020.

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta  
Zuzendari nagusia / Director General